

2018ko Aurrekontu beterazpenari **buruzko Udal Araua.**

1.- Art: Printzipio orokorrak.

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua eta abenduaren 15eko 255/2007 Foru Dekretuen arabera, 2017rako ondoko Aurrekontu beterazpenari buruzko Araua ezartzen da.

2.- Art: Aplikazio eremua eta indarraldia.

Honako Arau hau **Munitibarko** Udaleko Aurrekontuari ezarriko zaio, eta horrek duen indarraldia izango du: Aurrekontu horren indarraldia baldin eta luzatzen bait da, era berean luzatutzat emango delarik Araudi hau.

3.- Art: Kredituen lotura mailak.

Aurrekontuaren egitura sarrera eta gastuen izaera ekonomikoari eta beroiek lortu nahi dituzten helburuei begira egongo da, hau da ekonomi eta funtzio egitura. (11. eta 12. Art.)

Baimenpeko kredituak muga eta lotura izaerakoak dira, eta lotura mailak honako hauek izango dira (19. Art.):

* Funtzioa eta artikulua: gastu arrunten eta kapitalezko transferentzia eta ondasun-inbertsioei buruzko gastuetan.

* Funtzioa eta kapitulua: ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketari, interesei, eta finantz aktibo eta pasiboen aldatetari buruzko gastuetan.

* Kapitulua: 1. Kapituluko (pertsonalari buruzkoak) gastuetan.

4.- Art: Kreditu zabalgarriak.

Sarrera gehigarrien eraginagatik, zabalgarriak bihurtuko dira 8. kapituluko gastu kredituak.

Bidezko espedientea onesteko eskuduntza Udal Batzarrak izango du. (24. Art.)

5.- Art: Aurrekontu kredituen aldarazpenen erregimena.

5.1. Kreditu transferentziak (29. Art.) : Pertsonalari dagozkionak eta funtzioaren barruan egiten direnen eskuduntza Alkateak izango du, ostera funtzio artekoak Udal Batzarrari dagozkio.

5.2. Kredituak ematea (31. Art.) : Lortutako sarrerek helbururen bat dutenean, emateko baimena Alkateak izango du, gainerakoetan Udal Batzarrari dagokiolarik.

5.3. Kreditu eransketa (32. Art.) : Eskuduntza Alkateak izango du.

5.4. Baliogabetzeagatiko bajak (33. Art.): Udal Batzarrak izango du eskuduntza.

5.5. Kreditu gehigarriak (34. Art.) : eskuduntza Udal Batzarrak izango du. Salbuespen gisa eta Aurrekontuaren %5a baino gehiagoko gehikuntza ez dakarten kreditu gehigarri-
etarako, onesteko eskuduntza Alkateak izango du.

6.- Art: Aurrek. beterazpenaren prozedura arauak.

Gastuen Aurrekontua kudeatzeko (40. Art.) fase hauek daude: a) Baimena.

b) Erabilpena.

c) Obligazio hartzea.

d) Ordainketa aginketa.

e) Ordainketa.

Aurrekontuan konsinatutako kredituak gainditzen ez dituzten gastuen lehen hiru faseak Alkatearen esku daude, baldin eta badira

nominak, gizarte aseguruak, kontrataturiko aldizkakoak, edo eta 1.200,00 Euro gainditzen ez dituzten gastuak; aipaturiko gastuen gainerakoak Udal batzarraren esku egongo dira. Lehen hiru faseak igaro ondoren, ordainketa aginketa guztien eskuduntza Alkateak izango du.

Ordainketa egiteko sinadura baliagarriak Alkatea, Diruzaina eta Idazkariarenak izango dira.

7.- Art: Frogatu beharrezko ordainketak.

Ordainketa agindu hauen hartzaileak (43. Art.), frogatu gabe dituzten kopuruen aplikazioa frogatu egin beharko dute hiru hilabetetako eperik luzenaren barruan, beti ere ekitaldia itxi aurretik, eta indarreko arautegiak ezartzen duen erantzunkizun erregimenaren menpean gelditzen direlarik.

8.- Art: Kutxa finkoko aurrerakinak.

Aldizkako gastuetarako, frogatzeko dauden fondoak Kutxa Finkoko Aurrerakin bezala igorpendu daitezke.

Aurrerakin hauen eskuduntza izateko gaitasuna Alkateak aginduko du, eta kutxako izakinen kargura aplikatu edo abonatuko dira.

Udal Batzarrak izendaturik, ondoko eskudunak eta diru kopuruak daude:

<u>Eskuduna</u>	<u>Diru kopurua</u>
Alkatea	300,00 €
Idazkari-kontuhartzailea	300,00 €

9.- Art: Herriko talde ezberdin eta pertsona fisikoentzat Udalak ematen dituen diru laguntzetara atxikitze prozedura arauak.

- 1) Munitibarko udalak herriko talde ezberdin eta pertsonentzako dirulaguntzak ezarriko ditu bere urteko aurrekontuan. Herriko talde hauek herriaren dinamizatzaileak direla kontsideratzen da bakoitza dagokion arloan. Pertsona fisikoen kasuan laguntzak ongizate mailakoak izango dira.
- 2) Herriko talde bakoitzak dirulaguntzetara aurkeztu ahal izateko bere urteko plangintza eta aurrekontua aurkeztu beharko ditu eskaera hori egiterakoan. Pertsona fisikoen kasuan Munitibarko ongizate batzordera zuzendu beharko da eta bere arazoaren berri eman. Ongizate batzordeak kasu guztiak banan-banan aztertuko ditu eta egoki deritzon dokumentazioa eskatu.

3) Munitibarko udalak dirulaguntzon ebazpenak egiterakoan gastuen justifikazioa azaltzen duten dokumentuak eskatuko dizkio talde edo norbanakoari, eta dokumentu horiek eskatzen diren epe barruan aurkeztu ezean dirulaguntzak indargabetzeko ahalmena dauka. Laguntzak aldeko erresoluzioa egin eta berehala emango dira.